

IV. Garagardo Festa

Torrean, etzi;
besteak beste,
bost garagardo
mota dastagai ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2005-11-24 ▶ III. urtea ▶ 745. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Zortzi herrialdeetako istorio eta txotxongiloen magia, Titirijain

TOLOSA ▶ Etzitik abenduaren 4ra hartuko du Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia

TXINA ▶ Asiako erraldoiaren miliurteko artea izango da 23. edizioaren ikurra

LEIDOR ▶ «Hutsunea kalitateak orekatzea» espero dute antolatzaileek ▶ 3

L. GARCIA



Sahiesbide berriaren lehen harria jarri dute

AMEZKETA ▶ Atzo egin zuten ekitaldi sinbolikoa; lanak abenduaren 20an hasiko dira ▶ 4

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Emakumeen aurkako indarkeria salatuz

Ekitaldiak non-nahi ▶ 2

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Hileko azken ostiraleroko deia

Orain, irakaskuntza alorreko aldarrikapena ▶ 7

ALBERTO LABAKA ▶ TOLOSAKO BABARRUNAREN LEHIAKETAKO IRABAZLEA

«Garrantzitsuena ez da saria lortzea: onena bezeroak konforme izatea eta kalitate oneko produktua saltzea da»

Albizzardera joan da aurten ere Tolosako Babarrunaren Lehiaketako saria; uztaz eta kalitateaz aritu da Labaka ▶ 6



N. URBIZU

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA ▶

Hainbat ekitaldi emakumeen aurkako indarkeria salatzen

Olerkiez, bertsoez eta musikaz hornituriko ekitaldia eta kontzentrazioa izango dira bihar arratsaldean

IÑIGO TERRADILLOS

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da biharkoa. Hori dela eta, «emakumeek jasaten duten indarkeria salatzen asmoz», hainbat ekitaldi antolatatu dituzte eskualdean, bai bihar, bai eta ondorengo egunetan ere.

TOLOSA

Bihar. Olerkiez, bertsoez eta musikaz hornituriko kultur ekitaldia izango da: Txaro Arteagag, Emakundeko zuzendari ohiak, hitzalditxo bat eskainiko du, Julia Otxoa idazleak olerkiak irakurriko ditu, Amaia Agirre bertsolariak bertsoak kantatuko ditu eta David Azurza, Miren Garikano eta Iñigo Alberdi musikariek musika emanaldia emango dute Errotako hitzaldi aretoan (Haur eta gazteen liburutegian), 19:30ean hasita.

Abenduaren 1a. Gizezkoak emakumeen aurkako indarke-

riaren aurrean hitzaldia eskainiko du Ibon Arrizabalagak —Emakume eta Gizonen arteko berdintasunaren gaineko masterra—. Ero-Etxe elkartearen izango da, 19:00etan. Bertan parte hartu ahal izateko 943 65 44 66 telefono zenbakira deitu beharko da hilaren 29a baino lehen.

Abenduak 13. Hezkidetzaren bidea, indarkeria prebenitzeko gako hitzaldia izango da, Amparo Tome Bartzelonako Udaleko Hezkuntza Institutuko Baloietan heztea izeneko proiektuaren zuzendariaren eskutik, Errotako hitzaldi aretoan.

Abenduak 14. Tratu txarrak eta eskola. Nahiko egitasmoaren inguruko esperientzia topaketa. Hizlariak Anparo Tome eta Emakundeko ordezkaria izango dira.

Abenduak 16. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, nola erantzun udal admi-

nistrazioak? Gasteizko Udaleko Genero Berdintasunerako teknikaria, Reina Ruiz Bobesen eskutik.

Informazio gehiago. Ekitaldi horiek guztiak Tolosako Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuak antolatuta dituzte. Informazio gehiago nahi izanez gero, Tolosako Udaleko Berdintasunerako Zerbitzura joz, 943 65 44 66 telefono zenbakira hots eginez edo e-mail bidez, berdintasuna@tolosakoudala.net. helbidean, eskuratu ahalko izango da.

TOLOSALDEA

Bihar. Tolosaldeko Bilgune Feministak antolatuta, eskualde mailako kontzentrazioa izango da bihar Tolosako Triangulo plazan, 20:00etan hasita, *Emakumeen kontrako indarkeria ez! Erasotzaileei ekintza zuzena* lelopean. Antolatzaleek dei zabala egin diete herritarrei elkarretaratzean parte har dezaten.



Txaro Arteagag hitzaldia eskainiko du bihar. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Trataeraren dekalogoa

Emakumeenganako indarkeriarekin lotura duten gertakarien tratamendu informatiboa egokia izango dela bermatzeko dekalogo osatu berri du Bilgune Feministak, eta dagoeneko Euskal Herriko hainbat komunikabidek —TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA tartearen— bere egin dituzte bertan jasotako konpromisoak.

Dekalogoaren sarreraren azaltzen denez, «sexuen arteko botere harremanen ondorioz emakumea zapalduta egotea emakumeen kontrako indarkerizat jotzen dugu; halaber, instituzioetan, hezkuntza sistematari, eremu laboralean, osasun sistematari... ematen diren harremanak ere jerarkikoak dira, emakumea zapalduta egonik». Eta «emakumeok askatasunez bizitzeko eskubidea dugunez, instituzioek eta gizarte eragile zein politikoei behar diren neurriak eta bitartekoak ezartzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu eskubide hori bermatzeko» gehitu du Bilgune Feministak, indarkeria sexistaren inguruko kontzientzia zio lana burutzea adibide bezala emanez.

Hala, ondorengo puntuak zehazten dira dekalogoan:

▶ Emakumeen kontrako indarkeria egiturazkoa den heinean, hedabideek horrelaxe islatu eta irudikatu behar dute. Errotik ateratzeko, bitartekoak ere egiturazkoak izan behar dira; beraz, ez datza neurri koiunturalak hartzean, jendartearen eraldaketa sakona egitean baizik.

▶ Emakumeenganako indarkeriaren inguruko informazioak ez dira gertakari isolatuak; beraz, horiek helduek egungo testuinguruan kokatu behar dira, zapalkuntzaren egoeraren ondorioz hartuta, eta behar duten espazioa eta garrantzia bermatuz.

▶ Ez dago erasotzaile ez eta biktimaren profirik. Beraz, maila soziala, kulturala edota ekonomikoa era jakin batekoa den ideia ez da helarazi behar.

▶ Estereotipo eta eginkizun sexistaren erabilpena ekidin behar da, emakumeen aurkako indarkeria iraunarazten baitute.

▶ Sensazionalismoa saihestu, informazio nabarmena eta serioa izan behar baita.

▶ Jarraipena landu, erasoaren ondorengo prozesuaren berri emanez.

▶ Elementu positiboak irudikatu, indarkeria sexista pairatzen duten emakumeek bizitza berregiten eta beste emakumeek urratsa eman dezaten laguntze aldera.

▶ Informazioaren helburua laguntzea, jendarteratzea eta aurre hartzea izan behar du.

▶ Mugimendu feminista eta giza eragileek burutzen duten mobilizazioak, salaketak eta ekimenen berri helarazi.

▶ Hainbat elementu —musika, irudiak, komikiak, publizitatea— ere emakumeen zapalkuntza eta indarkeria sexista iraunarazten dute, hortaz, ekidin egin behar dira.

Irurako udala



Biolentzia generikoaren aurka

Mikel goi aingeru plaza, 1 **943 69 13 33**



943 673 827

Ibarako udala
biolentzia generikoaren
aurka

Ibarako udala • Euskara zerbitzua

Zizurkilgo udala



Biolentzia generikoaren aurka

Teodoro Hernandezena, 6
943 69 10 12

23. NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA ▶

EGITARAUA ▶ EGUNEZ EGUN

ETZI, LARUNBATA

Kultur Etxea. Venezuelako Titeres La pareja, *Panchito Mandefua* lanarekin, 17:30ean.
Beotibar pilotalekua. Txinako Guandong puppet theatre taldea *Lignango hagabxoen magia* lanarekin, 20:00etan.

AZAROAK 27, IGANDEA

Kultur Etxea. Bulgariako Teatro Ariel-ek *Jostunbo ausarta* lana aurkeztuko du, 12:00etan eta 16:30ean.
Kasinoa. Asturiaseko (Espainia) Teatro Plus taldearen *Carabasko antzerkia*, 19:30ean.
Gorosabel auditorioa. Andaluziatik (Espainia) Teatro Maravillas, *Kaio baten historia* lanarekin, 18:00etan.

Beotibar pilotalekua. Txinako Guandong puppet theater, *Lignango hagabxoen magia* lanarekin, 17:30ean eta 20:00etan.

AZAROAK 28, ASTELEHENA

Kultur Etxea. Txinako Hunan shadow art troupe taldeko *Itzalen joka* lana, 10:30ean, 15:00etan eta 18:30ean.
Kasinoa. Asturiaseko (Espainia) Teatro Plus taldearen *Carabasko antzerkia*, 11:00etan eta 15:00etan.

Gaualdean, 20:30ean eta 22:30ean, Greziatik etorritako Baruti al filo de los hilos taldea, *Ekialdeko misterioa* lanarekin.

Gorosabel auditorioa. Argentinako Libertablas taldea, *David eta Gollat* lanarekin, 12:00etan, 15:00etan eta 17:30ean.
Beotibar pilotalekua. Txinako Guandong puppet theater, *Lignango hagabxoen magia* lanarekin, 11:00etan eta 15:00etan.

AZAROAK 29, ASTEARTEA

Kultur Etxea. Txinako Quanzhou mar troupe taldeak *Ilusioaren harian* aurkeztuko du, 10:30ean, 15:00etan eta 18:30ean.
Kasinoa. Greziatik etorritako Baruti al filo de los hilos taldea, *Ekialdeko misterioa* lanarekin, 11:00etan eta 15:00etan. Gaualdean, Kataluniako Valeria Guglieti taldea, *Ez ukitu nire eskuak* helduentzako lanarekin, 20:30ean eta 22:30ean.

Beotibar pilotalekua. Txinako Guandong puppet theater, *Lignango hagabxoen magia* lanarekin, 11:00etan eta 15:00etan.
Gorosabel auditorioa. Bulgariako Targovishte puppet

theatre taldea *Mutikoa eta haizea* lanarekin, 12:00etan, 15:00etan eta 17:30ean.

AZAROAK 30, ASTEAZKENA

Kultur Etxea. Uruguako eta Andaluziako Angeles de trapo taldea *On Kixote ahaztezina* lanarekin, 10:30ean, 15:00etan eta 18:30ean.
Kasinoa. Txinako Quanzhou mar troupe taldeak *Ilusioaren harian* aurkeztuko du, 11:00etan eta 15:00etan. Gauean ere emanaldi bera eskainiko dute helduentzat, 20:30ean eta 22:30ean.

Beotibar pilotalekua. Txinako Guandong puppet theater, *Lignango hagabxoen magia* lanarekin, 11:00etan eta 15:00etan.
Gorosabel auditorioa. Alemaniako Erfreuliches theater erfurt taldea, *Koloretako erregina* emanaldiarekin, 12:00etan, 15:00etan eta 17:30ean.

ABENDUAK 1, OSTEGUNA

Kultur Etxea. Txinako Zhangzhou puppet show troupe taldearen *Eszkuzorroaren magia* lana, 10:30ean, 15:00etan eta 18:30ean.
Kasinoa. Txinako Hunan shadow art troupe taldea,

Itzalen joka lanarekin, 11:00etan eta 15:00etan. Gauean berriz, 20:30ean eta 22:30ean, Uruguako eta Andaluziako Angeles de trapo taldea *On Kixote ahaztezina* lanarekin.
Beotibar pilotalekua. Txinako Guandong puppet theater, *Lignango hagabxoen magia* lanarekin, 11:00etan eta 15:00etan.
Gorosabel auditorioa. Txinako Song song song C.P.T. taldea *Heriotzako magistratua* lanarekin, 12:00etan, 15:00etan eta 17:30ean.

ABENDUAK 2, OSTIRALA

Kultur Etxea. Madrilgo (Espainia) Teatro de la Luna taldearen *On Kixoteren antzerki txikia*, 10:30ean, 15:00etan eta 18:30ean.

Kasinoa. Euskadiko taldeko Antzezkiuna taldeak *Joseito eta Ortadarra* aurkeztuko du, 11:00etan eta 15:00etan. Gauean, helduen saioan, Txinako Zhangzhou puppet show theatre taldearen *Ezkuzorroaren magia*, 20:30ean eta 22:30ean.
Beotibar pilotalekua. Txinako Guandong puppet theater, *Lignango hagabxoen magia* lanaren emanaldi eskainiko

du bi saioetan, 11:00etan eta 15:00etan.
Gorosabel auditorioa. Txekiako Vita Marcik taldearen *Edurnezuri eta zazpi ipobxak* lana, 12:00etan, 15:00etan eta 17:30ean.

ABENDUAK 3, LARUNBATA

Kultur Etxea. Madrilgo (Espainia) La Canica taldearen *Elefantetxoa* emanaldia, 12:00etan.
Kasinoa. Adunako Asvinenea taldekoek *Bikote orojakilea* lana aurkeztuko dute, 20:00etan.
Beotibar pilotalekua. Txinako Guandong puppet theater, *Lignango hagabxoen magia* lanarekin, 17:30ean eta 20:00etan.
Gorosabel auditorioa. Kataluniako Valeria Guglieti taldea, *Ez ukitu nire eskuak* lanarekin, 16:30ean eta 19:00etan.

ABENDUAK 4, LARUNBATA

Gorosabel auditorioa. Asturiaseko (Espainia) Teatro Plus taldea, *Egia da, egia da* lanarekin, 16:30ean eta 19:00etan.
Beotibar pilotalekua. Txinako Guandong puppet theater, *Lignango hagabxoen magia* lanarekin, 17:30ean eta 20:00etan.

Hariak astintzeko garaia

«Leidorren hutsunea kalitateak orekatzea» espero dute etzi hasiko den Titirijai 05ean; Txina izango da izarra

NOELIA LATABURU

Kultur ekitaldiek ez dute etenik gurean. Horrela, Nazioarteko Abesbatzen eta Babarrunaren Astearren lekukoa hartuko du etzi Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiak. 23. edizioa du aurtengoa Titirijaiak, eta abenduaren 4ra arte luzatuko da. 8 herrialdeetako 20 konpainiek hartuko dute parte bertan. Guztira, beraz, 21 ikuskizun ezberdinen 143 antzeppen eskainiko dituzte. Aurtengo izarra, gainera, txinatarr txotxongiloari leihoa izango da. Asiako erraldoiaren txotxongiloaren mi-lurteko artearen erakustaldi zabala eskainiko dute. Hari, eskuzorro, hagatxo eta itzalen txotxongiloetan bereziak dira txinatarrak. Dena den, gainontzeko herrialdeetako emanaldiei ere garrantzia eman nahi diete antolatzaileek.

Atzo burutu zuten aurkezpen ekitaldia Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, eta bertan izan ziren Eusko Jaurlaritzako Kultura Kontseilari Gurutz Larrañaga, Foru Aldundiko Kultura zuzendari Imanol Agote, Tolosako alkate Jokin Bildarratz, TEEko lehendakari Ana Arretxe eta Jaialdiko zuzendari Miguel Arretxe. Ana Arretzek hartu zuen hitza lehen eta Leidor aretoaren hutsunearen gainean jardun zuen, besteak beste. Antzokiaren berritze lanak direla eta «konpainia kopurua txikitzea beharturik» aurkitu badira ere, «aukeratu ditugun ikuskizunen kalitateak espazio murrizketa orekatuko du». Kixoteren IV. mendeurrenaren eta Hans Christian Andersen-en berrehungarren urteurrenaren ospakizunek ere tartea izango dute, bereziki ekoiztu diren bi



Atzo aurkeztu zuten Titirijai 05-eko egitarau zabala, Donostiako Koldo Mitxelena. NOELIA LATABURU

ikusizunekin. Tolosan ez ezik, Euskal Herriko beste hainbat txokoetan ere eskainiko dituzte emanaldiak, Ibarran, Donostian, Eibarren, Elgoibarren, Iruñen, Ordizian, Pasaian, Sestaon eta Iruñean, hain zuzen ere. Honen harira Imanol Agotek «kultur lurraldetasunaren garrantzia» aipatu zuen, kultura eta ekonomia errentagarritasunaren isla. Halaber, TEEko kultur kudeaketa «erredugarria» dela aipatu zuen Kultura zuzendariak. Gurutz Larrañaga ere aritu zen jaialdiaren gainean. Leihorearen atalak atzerriko herrialdeei eskaintzen dien tar-

tea «nazioartera zabaltzeko oso baliagarria» dela azaldu zuen. Dagoeneko, 10 herrialde ezagutu dira horrela, eta «gu bezalako kultur txikientzat horrelako leihok irekitzea ezinbestekoa» dela adierazi zuen. Jokin Bildarratzek, bere aldetik, jaialdi honen jatorria ekarri zuen gogora. «Duela 23 urte parrokiako lokalean hasi ziren txotxongiloak ilusio handiz; egun, finkaturik dauden honetan, etorkizunerako proiektua da». Jaialdiaren harira eta Tolosaren 750. urteurrenarekin batera, bi proiektu azpimarratu nahi izan zituen. Ba-

tetik, 2006an mundu osoko txotxongiloak Tolosan izango dira, TEEk bertan antolatuko baitu Unima-ren bilera nagusia. Bestetik, uneotan Udala eta TEE elkarlanean aurrera eramaten ari diren proiektua aipatu zuen, Txotxongiloen Zentro Iraunkorra, hain zuzen ere. «Txotxongiloen arteari eta arte eszenikoei zuzenduriko espazio hau», dagoeneko lehiaketara aterata dena, datorekin urtean hasiko da eraikitzen. «Txotxongiloen jaialdiarekin, proiektu txiki batetik handi batera igaro gara, bada, 23 urtetan».

AMEZKETA ▶ HIRIGINTZA



Ezkerretik hasita, J. J. Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia, J. Artola Hirigintzako zinegotzia, J. M. Goikoetxea Kultur zinegotzia eta J. Sagastume alkatea, atzo, udaletxean egindako ekitaldiaren une batean. I. GARCIA

Saihesbide berriaren obrei hasiera eman dien ekitaldi sinbolikoa egin dute

Jose Juan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Julian Sagastume Amezketa alkateak hartu zuten parte, besteak beste, ekitaldian

DATUAK ▶

Saihesbide berriaren zenbait datu:

Aurrekontua. Obraren esleipen aurrekontua 2,35 milioi eurokoa da.

Epea. Bederatzi hilabeteko epea dute obrak amaitzeko. Abenduaren 20aren inguruan hasiko dira lanak.

Luzera. 800 metro izango ditu saihesbide berriak.

Zubiak. Guztira, lau zubi izango ditu saihesbideak herrigunearekin lotzeko.

eta Aralar papeleran amaituko da. Guztira, 800 metroko luzera izango du. Pozik zegoen Sagastume alkatea, «herrigunearen bizi-kalitatea» handituko delako. Eskerrak eman zizkion Foru Aldundiari proiektu horri ekingo diolako eta saihesbideak «Amezketa erortzizuneko garapena» erraztuko duela azaldu zuen.

Kontuan izanik garraio gehienak Alegiako bidetik joaten direla, Amezketa erortzizuneko harriguneari beste aldean kokatzen da. Horrela, egunero hainbat kamioik zeharkatu behar izaten dute harrigunea. Herrerentzat arriskutsua suertatzen da egoera hori, harrigunea igarotzen duen errepidea oso estua baita. Are gehiago kontuan izanez gero bi estugune daudela, hau da, bi auto batera sartzen ez diren puntuak. Saihesbide berriak arazo hori ekiditea du helburu. Zama-lanak egiteko, baina, zenbait kamioik harrigunera sartu beharko dute. Oraindik Udalak ez du zehaztu nola bideratuko duen egoera hori.

Ekitaldian zehar, Jose Juan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak ere hitza hartu zuen. «Pozgarria da hemen egotea», azaldu zuen agintariak, «eta espero dugu bederatzik hilabete barru obrak inauguratzeko berriro hemen izango garela». Gipuzkoako errepide sarean dauden ekintza estrategikoak aipatu ondoren, «Gipuzkoa hiri bezala ikusi behar den honetan, herri txikiak garrantzi handia dute» azaldu zuen. «Foru Aldundiak ekintza estrategikoez gain, herri txikietan hain garrantzitsuak diren obrak bultzatzea du helburu», eta Amezketa Udalak saihesbide berria gauzatzeko emandako «errezatasunak» eskertu zituen. Bestalde, aurrekontua 2,35 milioi eurokoa zela zehaztu zuen: «Proiektu garrantzitsua da Amezketa erortzizuneko, Udalaren legealdi bateko aurrekontuaren bezainbesteko inbertsioa egin baita».

IMANOL GARCIA


«30 urtetan amezketarrek amesten zutena errealitatea izango da». Julian Sagastume Amezketa alkatearen hitzak dira, atzo udaletxean egin zituenak, herriko saihesbide berriaren obrei hasiera ematen zuten ekitaldian. Aurretik, alkatea bera, Jose Juan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusiarekin, Javier Zurriarren Gipuzkoako Bide Azpiegiturako diputatuarekin eta Joxean

Artola Hirigintzako zinegotziarekin batera saihesbidearen obraren lehen harria jarri zuten sinbolikoki Aranzasti baserriaren ondoko lursail batean: karpeta handi batean eguneko egunkariak, proiektuaren txostena eta errepide maparen planoak sartu eta prestatuta zegoen zulo batera bota zuten; ondoren, laurek pala-lur bana bota zuten zuloa. Lanak abenduaren 20an hasiko dira.

Saihesbide berria Aranzasti baserriaren aurretik hasiko da

Gure Irratia Bidegurutzean

Sostengu kantaldia, 2005eko urriaren 29an iragan zena, orain DVDan eskuragarri



Parte-hartzaileak:

- Pil Pil taldea
- Maialen Errotabehere
- Anje Duhalde
- Eperra taldea (Niko eta Dominika Etxart, eta Robert Larrandaburu)
- Kattalin Indaburu
- Karolina Philips
- Unama taldea
- Xabaltx
- Amaren Alabak



AZAROAREN 25ean



DVDn etxean joko duzun.



Euskaldunok behar dugun **berria**

TOLOSA LANTZEN, S.A.

Lehiaketa

Tolosa Lantzen SAKO Administrazio Kontseiluak, 2005eko azaroaren 2an, onartu du baldintza administratibo partikularren agiria, Rokodromo eta Bulderra hornitu eta instalatzeko kontratua egiteko.

1.- Helburua.- Rokodromo eta Bulderra hornitu eta instalatzeko kontratua adjudikazioa.

2.- Zenbateko enkantea.- 365.400,00€ (BEZA barne), Lote bakarra.

3.- Kontzesioaren iraupena.- Instalatzen eta entregatzen 2006ko martxoaren 31 baino lehenago.

4.- Dokumentazioa.- Tolosako Udaletxeko Erregistro eta Informazio bulegoan (Tolosa Lantzen, S.A.aren egoitza soziala)

5.- Behin-behineko bermea.- 7.308,00.-€

6.- Behin betiko bermea.- 14.616,00.-€

7.- Proposamenak aurkezteko lekua eta epeak.- TOLOSA LANTZEN SAKOaren egoitza: Tolosako plaza Zaharra 6-3, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hamabost egun kontatuta, ordutegia: 09:00-13:00

Proposamena korreo bidaltzen bada, interesdunak egiaztatu egin beharko du, dagokion agiriarekin, posta-bulegotik zer egunetan bidali duen, eta Kontratazio-Organuari adierazi, egun horretan bertan, fax (943 69 75 02), telex edo telegrama bidez, proposamena bidali duela, Baldintza horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko.

8.- Kartazalek non eta noiz irekiko dira.- Kartazalek TOLOSA LANTZEN SAKOaren egoitza sozialean (plaza Zaharra 6-3) irekiko dira, proposamenak aurkezteko epea bukatu eta laugarren egun baldinuzan.

9.- Proposamenak egiteko ereduak.- Baldintza-agirian agertzen dena.



Tolosa, 2005ko azaroaren 7an.

TOLOSA LANTZEN SAKO lehendakaria - Sin.: Jokin Baldarratz Sorron

Bihar,
Tolosako hainbat txoko itxuraldatuta agertuko dira

AZAROAK 25

Tolosak, artearen eta kulturaren bidez, bat egingo du gizonezkoen indarkeriak hildako emakumeenganako doluarekin.



Azaroak 25

Kultur ekitaldia (olerkiak, bertsoak eta musika). Parte hartuko dute: Txaro Arteaga, Julia Otxoa (idazlea), Amaia Agirre (bertsolaria), David Azurza, Miren Garikano eta Iñigo Alberdi (musikariak)
Errotako hitzaldi aretoan (Haur liburutegia) 19,30etan

Abenduak 1

Topaketa: *"Gizonezkoak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean"*.
Hizlaria: Ibon Arrizabalaga. Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunaren Gaineko Masterra (UPV-EHU).
Ero-Etxe elkartearen 19,00etan. Asistentzia aldeztu aurretik konfirmatu behar da (Berdintasunerako Zerbitzura jo: 943.65.44.66;berdintasuna@tolosakoudala.net)

Abenduak 14

Topaketa. *Tratu txarrak eta eskola. "Nahiko" egitasmoaren inguruko esperientzia.*
Hizlariak: Amparo Tomé. (Bartzelonako Udaleko Hezkuntza Institutuko "Balioetan hezte" proiektuaren zuzendaria) eta Emakundeko Ordezkarria

Abenduak 13

Hitzaldia. *"Hezkidetzaren bidea, indarkeria prebenitzeko gako"*
Hizlaria: Amparo Tomé.
Bartzelonako Udaleko Hezkuntza Institutuko "Balioetan hezte" proiektuaren zuzendaria. Errotako hitzaldi aretoan (haur liburutegia).

Abenduak 16

Topaketa.
"Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, nola erantzun udal administrazioak?"
Hizlaria: Reina Ruiz Bobes.
Genero-berdintasunerako teknikaria.
Gasteizko Udala



Antolatzaileak:
Tolosako Udaleko
Berdintasunerako Zerbitzua eta
Gizarte Zerbitzuak

Informazio gehiago:
Tolosako Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuan
943.65.44.66
berdintasuna@tolosakoudala.net

ALBERTO LABAKA ▶ TOLOSAKO BABARRUNAREN LEHIAKETAKO AURTENGO IRABAZLEA

«Aurtengo uzta ia eskasa izan bada ere, kalitate onekoa izan dela dirudi»

la urtero bezala aurten ere Albizurrera joan dira Tolosako Babarrunaren Lehiaketako hiru sariak; Alberto Labakaren babarrunak izan dira onenak



NEREA URBIZU

NEREA URBIZU

Aurten ere, aspaldiko urteetan bezala, Albizturko herrira joan beharko dugu babarrunik onenak dastatzera. Kasu honetan Iriarte baserrira, Alberto Labakaren baserrira, alegia. Hark irabazi berri du Tolosako Babarrunaren Lehiaketa. Besteak beste, uztaz eta babarrunaren kalitateaz aritu da solasean HITZAREKIN.

Ezin esan aurtengo uzta txarra izan denik...

Egia esan, normala edo eskasa izan da. Kantitateari begira ez

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'. Herrietako, elkarteetako, auzoko berriak, oharrak, jakinarazpenak eta bestelako berriak gure webguneko *Zeuk idatzi* atalean zintzilikatzeo aukera duzue irakurleok. Hala, denon artean, denontzat den egunkaria egingo dugu.

HAZIA

«Hasieran bakoitzak bere hazia zeukan; orduan haziaren kalitatea desberdina zela pentsa zitekeen»

da gehiegizkoa izan, lehortea izan zen, berandu hasi zen, abuztuan lekarik ez zen jaso... Gero, udazken ona egitearekin ondo bildu da. Babarrun on bat ateratzeko denetik behar da; ura eta eguzkia.

Jasotakoarekin zer egiten duzue?

Etixerako dira hasiera batean, behar dugun guztia hartzen dugu, eta bestela betiko bezeroek erosteko. Ez dugu ferietan saltzen. Aurten 250 kilo inguru jaso ditugu: ez da asko ere, baina gure nahietarako nahikoa.

Aurten 1.700 euroren truke erosi dira hiru kilo preziatu horiek. Zer deritsozu?

Nik uste asko dela, baina gero gazta zati batengatik ordaintzen dena entzuten duzu, eta ez da prezio horietara inolaz ere hurbiltzen. Askok iruditzen zait, hala ere. Lehengo urtean 1.200 euro inguru lortu ziren, eta aur-

ARTOA EUSKARRI

«Hiru prozeduretatik artoarena jarraitzen dut; babarrun gutxiago ematen du, baina baita lan gutxiago ere»

ten dezente igo da. Martxa onen doa, hau ere goraka.

Bigarren eta hirugarren sariak ere Albizturkoak dira; zer pentsatu behar da, hementxo lurra berezia dela?

Zerbait egon behar duela uste dut, zer pentsa ematen du. Desberdintasuna lurra edo klimak eman dezake, besterik ez. Kare-haitza asko omen dago. Argi dago ez dela kasualitatea.

Zeinek aukeratzen du hazia?

Urtero baserritar batek hartzen du ardua, bertako hazia banatzen du. Elkartera eramaten da, eta han erosleak zein mota nahi duen eta nahi duen kilo kopurua eskatzen du. Nolabait, behartuta gaude elkarrekin ematen digun hazia landatzera, eta horretarako izenpetuta egon behar da.

Babarruna hazteko garaian, orduan, ez da alde handirik egongo.

GARRANTZITSUENA

«Garrantzitsuena ez da saria lortzea: onena bezeroak konforme izatea eta kalitate oneko produktua saltzea da»

Hori da. Ez dago aukera handirik, txikia edo handia dauzkazu aukeratzeko. Hasieran bakoitza bere haziarekin ibiltzen ginen, eta orduan pentsa zitekeen hazia hobea edo txarragoa izan zitekeela; baina orain denok hazi bera erabiltzen dugu, elkartek emandakoa, alegia. Hortaz, ale txikia edota ale handia erabiltzen ditugu. Bietatik bat aukeratzen duzu.

Elkarteko bazkide zein izan daiteke?

Hasiera batean Gipuzkoa mailakoa da, ez bakarrrik Tolosaldekoa. Aurten, adibidez, Ataungo baten bat zegoen 19 partaideen artean, Errenteriko beste bat, Zumaiakoren bat... Baldintza bakarra da bertako hazia erabili behar dela, bazkide izatea eta bertakoa izatea.

Zein prozedura erabiltzen duzu babarrunak heltzeko?

Hiru prozeduretatik artoarena jarraitzen dut, babarrunak artoari heltzen dionez. Parda eta sarea ez ditut erabiltzen. Gutxiago ematen du artoarekin, baina lana ere gutxiago da. Beti horrela egin izan dut.

Egia da ere ia urtero Albizurrera doazela sariak.

Bai, hala da. Lehengo urtean ez genuen saririk herrira ekarri, baina bestela nik uste bederatziz bat txapela lortu direla, lehiaketa egiten denez geroztik.

Zure kasuan, zehazki, zenbat alditan aterata zara garaile?

Ni bi aldiz; bigarren sarituak ere beste bi baditu.

Nolabait ere, espero zenuen saria izan al da?

Argi dago beti nahi duzula, baina ez da hori helburua. Lehengo urtean, adibidez, ez zuen Albizturko inork irabazi. Aurten lau partaide ginen, eta hiru sariak hiru albizturtarrentzat izan dira. Ez dakizu inoiz, baina txapelketa batean parte hartzen duzunean beti duzu irabazteko itxaropen hori, beti ere, aurkezten duzun produktua kalitate onekoa dela dakizularik, bermea hori baduzu. Zorte pixka bat ere behar da eta, nola ez, babarrun ona edukit. Dena dela, lehen esan bezala, ez da saria irabaztea garrantzitsuena, betiko bezero horiek konforme egotea, gustuko eta kalitate oneko babarruna eskaintzea baizik: bezeroei ondo zerbitzea. Gero txapela ateratzen duzula? Ba hobea.

Zein da babarrun on eta ez on baten arteko alde? Zertan datza kalitateak?

Hori epaileentzako galdera aproposa da! Ni ez naiz inoiz epaile egon... Ez dakit. Esaten dute eltzean ez dela hautsi behar, ahoan desegin behar dela, saldak lodia behar du, eta ez du beste gauza handirik behar.

Eta prestatzeko garaian?

Beti bota behar zaiola ura eta gatza. Bestelakoak ez dira behar, ez azarrik, ez porrurik. Tipula pixka bat agian, baina babarrunak egosteko garaian bere hortan utzi behar dira, beste ezerrekin nahastu gabe. Babarruna bere horretan probatu egin behar da. Behin probatuta, nahastu egin daiteke, odolkiarekin edo txorizoarekin.

Beste babarrun motarik landatu al duzue inoiz? Ez dira horren onak ateratzen?

Guk babarrun beltza eta txikia landatzen dugu soilik; zuriak, babak, edo bestelakoak etxerako, besterik babe. Bestela, ez da hori landatzen. Ez dute zeri-kuririk.

Hurrengo urtean berriz aurkezteko asmorik?

Bai, babarruna dugun bitartean, bai.

PRESOAK ▶

Oraingoan, irakaskuntza alorretik deia

Azken ostiraletako elkarretaratzeen deialdiak egin dituzte bi eskualdetan

JAIONE ASTIBIA

Irailen Euskal Herriko gehien-go sindikalak egin zuen Etxerat elkarteak hilabeteko azken ostiraletan *Estatus politikoarekin euskal presoak euskal Herri*ra aldarrikatuz egiten dituen elkarretaratzeetan parte hartzeko deia: ELA, LAB, ESK, STEE, EILAS, EHNE, HIRU eta ELB elkartu eta Arriagan ekitaldia burutu zuten; urriari, kulturaren arloan lanean diharduten gizon-emakumeek egin zuten: Donostiako Lugaritzen poesia errezitaldia eskaini zu-

ten. Oraingo txandan, «irakaskuntza alorrean» ari direnen txanda da.

Etxerat elkarteak HITZARA igorri duen oharren arabera, «bi estatuek preso dituzten gure senide eta lagunak ikasteko eskubideak ere ukatuak izaten jarraitzen dutenez», arrazoi emanda, ikasle preso- en ikasteko eskubidea gauzatu izan dadin, «irakaskuntza alorra lanean jartzea» dute helburu, ekimenarekin. Horrela, hilabete honetakoan eskubide honen defentsa egiteko deialdia igorri dute.



Tolosaldeko zenbait preso. J. A.

Orohar, Euskal Herri osoan, herri herri eta auzoz auzo egin dituzte deialdiak, *Estatus politikoarekin euskal presoak Euskal Herri*ra eskariarekin. Etxeratak dioenez, «mami handiko aldarrikapena» da hilerohilero egiten ari direna, alde batetik «gure senide eta lagunak Euskal Herriratzea» euskal preso politikoei nahiz senide eta lagunak ere sakabanaketa politikaren eraginez «egunegun jasaten ditugun eskubideen urraketaekin amaitzeko bidea» dela dio: «Osasun asistentzia, senide eta lagunak istripuak, isola-

men

galeriak, jipoiak, traslaldoak, euskaraz komunikatzeko eta ikasteko debekua, odoluste ekonomikoa...» eredu gisara aitatu. Horren harira, gogora ekarri dute Euskal Herriak «behin eta berriz, eta mila modutara», eskatu izan duela sakabanaketa politikarekin bukatzeko eta euskal presoak herriaratzeko, baina eskaerari «muzin egiten ari dira bi estatuek» egiaztatu dute; are gehiago, sakabanaketa politikarekin «gatazka politikoaren luzatzearen aldeko apustua» egiten ari direla baieztatu dute, hau horren «ondorioak euskal herritarrek jasatera behar-tuz», erantsiz.

Aldarriaren mamitasuna, bestetik, estatus politikoaren lorpenean dagoela adierazi dute oharrean. Izan ere Euskal Herriak bizi duen gatazka politikorekin behin betiko konponbiderantzko pausoetan eragile ezberdinen artean burutu beharreko balizko elkarrizketa eta akordioetan, euskal preso politikoei ere parte hartzeko duten eskubidea errespetatu dakien aldarrikatzen dute: «Eus-

kal Herriari batu eta, beste eragile guztiek bezalaxe, beraien hausnarketa eta ekarpenak egiteko aukera izateko baldintzak izatea», dio Etxeratek.

Edozein moduz, «eskubideen errespetua, ez besterik», horixe omen da beraiek esjiztzen dutena. Eta, zentzu horretan, «mami honekin» bat egiten duen edonori biharko elkarretaratzeetan bere «eskaera plazaratzeko gunea» eskaintzen duela agertu dute: «Batu-keta ariketa bat eginez (...) herri honetako seme-alabak diren euskal preso politikoko Euskal Herriratuz lehenik, eta ondoren, guztien parte-hartzearekin, gureak etxeratuko dituen behin betiko konponbide politikoa eta demokratikoa lortuko baititugu».

Horrela, gure bi eskualdeetan ere elkarretaratze deialdiak egin dituzte bihar iluntzerako herri-herri eta ohiko lekuetarako. 19:30ean, Alegian, Amezketan, Anoetan, Ibarra eta Tolosan; 20:00etan, berriz, Adunan, Asteasun, Ikaztegietan, Leitzan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilan.

PILOTA ▶

Bengoetxea VII.ak Leitzan jokatu du, Nafarroako II. Irekiko kanporaketan

Bihar, 19:20etan hasiko da jaialdia; Jaunarena, Lizarran txapeldun

J. ASTIBIA

Bihar iluntzean, Amazabal pilotalekuan, Nafarroako II. Irekiko Pilota Txapelketa hasiko dute, final-hamaseirenetako partidua profesionalekin, Frontisen eskutik, 19:20ean hasita.

Bi partidua ikusteko aukera izanen du bertaratzen denak eta aurrenekoan, gainera, Ibai Bengoetxea leitzarrak, Bengoetxea VII.ak, jokatu du. Final-zortzirenetako txartela lortzeko, Larraiauren aurka egin be-

harko du, lau t'erdiko kaiolaren barrenean. Aitatzekoa da, gainera, ez dela ohiko moduan jokatu: hamarrera jokatu dituzte bi partidua, eta berdinketarik balego, hirugarren bat, bostera. Beste partidua Alustiza eta Mikelen artekoa da.

Txartelak, berriz, salgai egonen dira hango takilan bertan, 10 euroren truke. Onena Amazabalera joatea bada ere, jakinarazi dutenez, TVE2 telebista katean zuzenean eskainiko dute jaialdia.

Jaunarena txapeldun

Bestalde, igaro den asteburuan jokatu ziren Lizarrako Pilota Txapelketako finalak ere, Leitzaldeko Aurrera pilota eskolako bi partaide bertan zirela. Jakitera eman dutenez, Jon Jaunarena leitzarrak txapela irabazi zuen, berak 18 eta Taintak 10eko emaitza eginda. Anartz Olano aresoarra, berriz, azpitxapeldun atera zen. Pradosen aurkakotan, 18 eta 14 galdu zuenez.

LEITZA ▶ GIZARTEA

IV. Garagardo Festa Torrean, etzi gauean

Herri afaria eginen dute eta bost garagardo mota desberdin dastatzeko aukera dago

J. ASTIBIA

IV. Garagardo Festa eginen dute larunbatean Leitzako Torrean eta ohiko garagardoez gain, Europa aldeko hainbat herrialdeetatik ekarritako beste bost berezi dastatzeko aukera izanen da.

21:30ean herri afariarekin hasiko dira, entsaladaren ondoren, patata puzez lagunduta parrilan erretako Alemaniatik ekarritako bi saltxitza motaz

eta saheskiz osatutako menuarekin. Txartelak salgai daude bertan, 20 euroren truke, eta bihar baino lehen hartzea komeni dela adierazi dute.

Afaritakoan, Belgikako garagardo gorria banatu dute pitxarretan. Eta gero, Ingalaterrako garagardo tostatu edota Belgikako garagardo beltza, Mexikoko argia, edota gariz egindako «gariardo» alemaniarra eta txekiarra izanen dira apar-apar.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan

50.000

etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 24a, osteguna ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

11

hotzena

07

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:

gaur: ez / bihar: bai

Pagomari:

gaur: ez / bihar: bai

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila



HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Baliarrain. Iñaki Martiarena *Mattin-en Belardo belar metaren ibilerak* ipuin-marrazketa. 17:30ean, Kultur Gelan.
Gatzelu. Bide Eginez batzarra. 20:00etan, udaletxean.
Ibarra. Gaztebixaren XII. urtemugan, *Mingain haragia* emakume ipuinen emanaldia Joxe Mari Carrererekin. 22:00etan, Gaztebixean.
Irura. Udaltalde 21 Ernioaldeak herri batzarra antolatuta du udaletxean, 19:30ean.

Tolosa. Bide Eginez prozesuaren bigarren batzarra. Etzi, larunbata, 10:30ean, Kultur Etxean.
Tolosa. Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak Torno eta Fresagailu konbentzionala ikastaroari ekingo dio astelehenean. Izen-ematea, 943 65 11 47an.

HITZALDIAK

Villabona. Hitzaldi zikloaren barruan, Paki Murielek *Oria ibaiaren berreskurapena Anoeta Irura artean* izango du mintzagai Biltokian, 17:00etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Villabona. Juan Vallejoren *Annapurna, azken zortzimilakoa*. 20:00etan, Gurean. Aizkardiren 22. Mendizale Astean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.



Martxa onean doa aurrera ekitaldiz beteriko Kultur Astea

IKAZTEGIETA ▶ Martxa onean doa Kultur Astea. Parte-hartze handia-ekin burutu dituzte asteburuko eta aste hasierako ekitaldiak, eta oraindik ere bada zer gozatua herrian. Jose Javier Cuadrado eta Elena Huartek irabazi zuten igandean Herri Krosa; Eneritz Maiz eta Jose Mari Garmendia izan ziren herriko lehenak —Kultur Astearen egitarauan sartu dute aurten ekitaldi arrakastatsu eta parte-hartzaile

hau—. Txotxongiloak, antzerkia eta hitzaldiak ere ez dira falta izan. Gaur, *Klima aldaketak eta horien eragina gure planetan* hitzaldia eskainiko du Elhuyar Fundazioak, 19:00etan, liburutegian. Bihar, *Antonino Apreta* ipuin kontaketa saioa izango da, Gorringo taldearekin, 17:00etan, liburutegian. Eta, larunbatean, Irrintzi taldearekin erromeria egingo dute herritarrek, 18:00etan, kiroldegiko frontoian. HITZA

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko Ahotza* magazina: 11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, *Argia*-ren errepasoa, albisteak, oharak...; 11:30ean, Emakumeek pairatzen duten Indarkeriaren Aurkako Egunaz Tolosako Berdintasunerako teknikari Jone Hernandezekin eta Tolosaldeko Bilgune Feministako kideekin; 12:00etan, Elhuyar Fundazioak zientziari eskainitako tarteak; 12:15ean, agenda; 12:30ean, herri kirolen inguruan Joxeanjel Sarasola lankidearekin; 12:45ean, Tolosako Titirijai Txotxongilo Jaialdiaren inguruko berriak, Enkarri Genuarekin; 13:00etan, lehiaketa eta disko eskainiak.
21:00-22:00. *Gora Euscadi Chistulari*, Matraiaiko irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekolpzen Zentroaren bidez.
22:00-23:00. *Gau bero*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶




URTE ASKOAN

Aixa eta bere aitabori zorionak ebekoen partetik muxu handi batekin.



URTE ASKOAN

Zorionak Hotel Oriako pottokari eta muxu handi bat Zipi eta Zaperen partetik.



URTE ASKOAN

Maitane Diego, 9 urte. Zorionak gure printzesari maite zaitugunon partetik.

hitza *lagunen*
txokoa

▶ HITZA harpidedunen artean...

...POXPOLO, MOKOLO TA KONPAINIAREN
"Eskola ta festa" 10 DVD zozketatuko ditugu.
Zozketan parte hartzeko deitu: 943 65 56 95 telefonora.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero